# BBC-n MALa BABESTEKO JARRAIBIDEAK

## BBC-n gela bat sortu LDAPa erabilita: https://www.ehu.eus/bilerak

1. **SAIOA SORTU:**

   a. Saioaren izena
   b. Gonbidatuak egon daitezke bileraren esteka kopiatu eta bidalita; epaimahaiko kideak izango dira moderatzaileak.
   c. Ikaslea aurkezlea izango da: esteka kopiatu eta bidaliko zaio saioan sartzeko.
   d. "DETALLES DEL EVENTO" dioen tokian: onena da saioa irekita uztea (bukatu gabe); horrela, estekak baliodunak izango dira gela sortzen duzuenetik defentsa bukatu arte. Probak egin daitezke ikaslearekin eta epaimahaiko kideekin.




   e. "AJUSTES DE LA SESIÓN": grabazioak jaitsi eta audioa, bideoa... konpartitu daiteke Aukera hori zehaztu ez baduzu, berdin dio; behin zehaztuta gordeta dauden grabazio guztiak eskuratu ahal izango dituzu.



2. **SAIORA SARTZEKO:** gonbidatuak estekaren bidez sartzen dira. Egokiena, Firefox edo Chrome erabiltzea da.

f. Saioan sartzean, baimena eman behar da sistemak mikroa eta audioa erabil dezan.

g. Moderatzailea saioan sartuko da ezkerreko karpetan klik eginda, eta ondoren, eskumatara "unirse a la reunión".







a. Behean, eskumatara, dauden gezi moreetan klik eginda, chaterako gunea irekitzen da, bilerako partaideen zerrena, edukiak ikusteko aukera eta konfigurazioa.






b. Partaideen zerrenda irekita, ikusiko dugu nor dagoen saioan, mikrofonoa piztua daukan eta abar...

c. Audioa eta bideoa kontrolatzeko, pantailaren beheko aldean, erdialdean ikonoak daude.





3. **SAIOA GRABATZEN HASTEKO**, goiko menuan, ezkerretara, “iniciar grabación”. Partaide guztiek ikusiko dute saioa grabatzen hasi dela. Menu horretan bertan eten daiteke grabazioa, eta denek ikusiko dute mezua.














4. **SAIOA BUKATZEKO**, ezkerretara, goiko menuan, ikur bat dago “Cerrar sesión” dioena.




5. **GRABAZIOA BERRESKURATZEKO,** bilerara sartzeko hasierako pantailan, goiko aldean ezkerretara dagoen menuan, aukeratu “Grabaciones”. Gure grabazio guztiak ikusiko ditugu. Nahi dugun grabazioaren eskumako menuan, barruan hiru puntu dituen zirkulu bat, aukera hauek izango ditugu:

   Deskargatu mp4 formatuan eta gorde grabazioa. Grabazioa berreskuratzea ez da berehalakoa, grabazioaren pisuaren arabera denbora bat behar baitu. Ebaluazio Epaimahaiko buruak urtebetean gordeko ditu grabazio horiek, TFMren Araudiaren 5.5 artikuluaren arabera. Garrantzitsua da grabazioa lehenbailehen deskargatzea; bestela, sistemak berak kenduko ditu denbora jakin bat igaro ondoren (hilabete inguru).




Grabaciones
Filtrar por
Grabaciones recientes
Nombre de la sesión/nombres de la grabación
Fecha
Duración
Prueba2/recording_4
30/3/20 12:20
00:00:17
Prueba2/recording_3
30/3/20 11:03
00:01:06
Prueba2/recording_2
26/3/20 9:28
00:00:09


23/3/20 15:17
00:03:14
Mirar ahora
Descargar
Editar nombre
Eliminar
Copiar enlace
Agregar origen de los subtítulos